

**2023ko apirilaren 1ean ospatuko den Erramu Zapatuko Ferian euskal labela duen produktua erreta saltzeko jarriko den txosnaren ustiapena adjudikatzeko zozketaren akta**

Data: 2023/03/10a

Ordua: 12:00- 12:15

Bertaratuak:

M<sup>a</sup> Concepción Ugalde, idazkaria

Joseba Aizpurua, teknikaria

Bertan daude ere jardun elkarteko bi ordezkari.

Ondoren teknikariak kontu eman du 4 eskaera jaso direla eta horien artean ez dagoela aurreko urteetako adjudikazio-hartzailea. Beraz, denak sartuko direla zozketan.

Aurkeztu direnak honakoak dira:

- Jardun euskara elkarte
- Aurrera kultur elkarte
- Harrera elkarte asistentziala
- Gure artera Sare

Ondoren eskaera bakoitzari zenbaki bat jarri zaio eta papeletak erabilita zozketa eginda, eta hurrenkera honakoa da:

- Aurrera kultur elkarte
- Gure artera Sare
- Harrera elkarte asistentziala
- Jardun euskara elkarte

Beraz, txosnaren ustiapena Aurrera kultur elkarteari adjudikatzea proposatzen da.

Itxaron zerrendan geratzen dira jarraian zehazten den hurrenkerarekin:

- 1.- Gure artera Sare
- 2.- Harrera elkarte asistentziala
- 3.- Jardun euskara elkarte

Eta jasota gera dadin nik, udaleko idazkariak, akta hau jasotzen dut.

